

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa****Durangoko Merinaldearen Mankomunitatearen 2020-2023ko diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta 2020ko ekitaldiko diru-laguntzen Ildo estrategiko eta espezifikoen I. eranskina.**

Osoko Bilkurak 2020ko ekainaren 18an hartutako erabakiaren bidez, Durangoko Merinaldearen Mankomunitatearen 2020-2023ko Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eta 2020ko ekitaldiko diru-laguntzen ildo estrategikoei eta espezifikoei buruzko I. eranskina onartu ziren.

Horren berri ematen da, denek jakin dezaten, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Abadiñon, 2020ko ekainaren 22an.—Presentea, Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia

**DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO
DIRU LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2023)****1. Sarrera****1.1. Aurreko oharra**

Diru-laguntzen Lege Orokorrak alegia, bultzada eta sustapen gisa ezagutu ohi den jardun publikoa legeak berak ezarritako parametroen barruan garatzea du helburu nagusi gisa, aurretik kontrolatzeko eta ondoren ebaluatzeko beharrezko mekanismoak ezarri, honako oinarritzko helburu hauetan oinarrituz:

- Interes publikoko eta interes orokorreko jarduna sustatzen laguntzea, gizarte zibil egituratuak egindakoa eta elkarte, entitate eta partikularren bitartez artikulatutakoa.
- Pertsonen sustapena eta gizarteratzea sustatzea, gizarte-egoera ahulean dauden herritarrei diru-laguntzak emanez.

38/2003 Legearen 8. artikulua ezartzen du administrazio publikoetako organoek, diru-laguntzak ezarri aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituztela hura aplikatzearen bidez lortu nahi diren helburuak eta ondorioak, bai eta horiek lortzeko epea, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa ere, betiere aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende.

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa diru-laguntzen jardura kudeatzeko tresna bat da, lortu nahi diren helburuak eta ondorioak haren aplikazioarekin erlazionatzeko aukera ematen duena, aurreikusitako kostuekin eta finantzaketa-iturriekin, diru-laguntzen bidez estali beharreko behar publikoak baliabide erabilgarriekin egokitzeko, aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzearen mende, eta aurreikusita dauden diru-laguntza guztiak hartu beharko ditu barnean, dagozkien ildo estrategikoetan sartuta egongo direnak.

Plan estrategikoa diru-laguntzak emateko edozein proposamen egin aurretik egin beharko da, eta planteatzen diren proposamenak Mankomunitatearen diru-laguntzen plan estrategikoan jaso beharko dira.

Plan estrategiko hau Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko diru-laguntzen kudeaketaz arduratzen diren arlo eta zerbitzuen parte-hartzearekin egin da.

1.2. Izaera juridikoa

Diru-laguntzen plan estrategikoak izaera programatikoa daukaten kudeaketa tresna bat dira; ez dute arau izaerarik, banakakoen mailan ez dute zuzenean eragiten, eta plana onartzeak ez dio administrazioari eskubide edo betebeharririk ekartzen. Eraginorra izan dadin diru-laguntzen ildo desberdinen edo diru-laguntza izendunen kasuan kasuko deialdiak onartu behar dira, baita ekitaldi bakoitzerako aurrekontu aukerak ere.

1.3. Eskumena

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko erakunde eskumenduna Osoko Bilkura da; izan ere, diruz lagundutako jardueraren plangintza estrategikoaren tresna bat da, edo esparrua sustatu eta eragin orokorreko tresna bat; horrenbestez, alde batetik Diru-laguntzen Ordenantza Nagusia onartzeko markoa eratu beharko du; beste alde batetik, agindu bat izango da kasuan kasuko udal aurrekonturako, bertan jaso beharko baitira diru-laguntzen ildo zehatzak, plan estrategikoan definitutako ildo estrategikoekin bat etorriz. Dokumentu horien gainean Osoko Bilkurari dagoeneko eskumenak modu argian esleitu zaizkio.

1.4. Diru-laguntzen Datu-base Nazionala. DDN

Horrez gain, administrazio guztiek emandako diru-laguntzei dagokienez etengabe informatu behar duten Diru-laguntzen Datu, eta horren ondorioz udaletxean diru-laguntzen kudeatzaile guztiak kasuan kasuko aldaketak eta horretarako aurreikusitako baliabide telematikoak egokitzeko lanak egiten ari dira, datu-base hori sortzea gidatzen ari diren gardentasun eta publizitateko irizpide berriak behar bezala betetzeko.



2. Esparru Objektiboa

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Diru-laguntzen Plan Estrategikak erakunde egituratzen den arlo edo zerbitzu guztietan emandako diru-laguntza guztiak biltzen ditu.

3. Denbora esparrua

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen denbora-eremuak 2020-2023 aldia hartzen du.

Hala ere, plana aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eguneratzen da, diru-laguntzen ildo espezifikoaren eranskina onartuz, IV. kapituluko («transferentzia arruntak») aurrekontu-aplikazioak zehaztuz, norgehiagoka-araubideko diru-laguntzak, zuzeneko emakida-koak eta diru-laguntza izendunak finantzatzeko.

4. Diru-laguntzak emateko deialdien eta oinarri arautzaileen oinarritzko ildoak

Diru-laguntzak emateko deialdi, hitzarmen eta ebazpenen oinarritzko ildo nagusiak, plan honetan ezarritako ildo estrategiko bakoitzeko helburu zehatzak alde batera utzita, honako hauek dira:

4.1. Betebeharra

Diruz laguntzeko jardueraren helburua izango da elkarte eta erakundeetan egituratutako gizarte zibilak garatutako proiektuak eta jarduerak sustatu eta sustatzea, baldin eta elkarte eta erakunde horietan helburu publiko bat edo interes sozial bat badago, Mankomunitateari estatutuetan esleitutako eskumenen esparruan, eta gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzea.

4.2. Printzipio nagusiak

Diru-laguntzen kudeaketa honako printzipio orokor hauen arabera izango da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.3 artikuluan xedatutakoaren arabera:

- Publizitatea eta gardentasuna, funts publikoen banaketan lehia eta berdintasuna bermatzen duen alde zuzeneko deialdiaren bidez, betiere zuzeneko emakidari kalterik egin gabe.
- Objektibotasuna funts publikoan esleitzeko prozesuan, lehia kasuetan jarduerak eta proiektuak aukeratzeko irizpideak eta horiek zenbatzeko haztapen metodoak ezarriz.
- Berdintasuna eta bazterketarik eza herritarren, sektoreen eta komunitateen artean.
- Gardentasuna baliabide publikoak banatzeko prozesuan, bai emakida prozesuan, bai emaitzak argitaratzeko prozesuan.
- Eraginkortasuna helburuak betetzean, erakunde kudeatzaile, unitate eta zerbitzuek emandako diru-laguntzen jarraipen eta kontrola egiteko prozedura bat ezarriz.
- Efizientzia baliabide publikoak izendatzean; diru- izendapen horiek justifikatu egin beharko dira kuantitatiboki eta kualitatiboki.
- Aurrekontu-egonkortasun printzipioa eta gastu-erregelarena: diru-laguntzak ematea egonkortasun eta gastu- erregelaren printzipioetara egokituko da, Aurrekontuen Egonkortasunaren apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusitakoari jarraituz.

Printzipio horiek guztiak aplikagarriak dira diru-laguntza programa eta ildoen multzoari dagokienez.

4.3. Helburu nagusiak

Plan honen eta laguntza ildoen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako lege-agindua betetzea. Artikulu horrek diru-laguntzak eman nahi dituzten administrazio publikoetako organoak behartzen ditu dagokien Plan Estrategikoa onartzera.



- Udalerrri mankomunatuetakoko pertsona, elkarte eta entitateen parte hartze soziala bultzatzea, gizarte zerbitzuen eta nazioarteko lankidetzaren, sustapen ekonomikoaren eta enpleguaren, kirolaren eta euskararen arloetan
- Laguntzen eta diru-laguntzen lerroak eta programak normalizatzeko prozesu bati ekitea, horiek guztiak gauzatzeko printzipio eta oinarri komunak ezarriz.
- Diru-laguntzen kudeaketa arrazionalizatzea, honako hauek kontuan hartuz: zeharkakotasuna planifikatzerakoan, sistematikotasuna haren prozeduretan eta tresna tekniko aurreratuak haren ebaluazioan.
- Zuzenean eragitea diru-laguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasun-eta efizientzia-mailak handitzean, laguntza-lerroak emateko eta justifikatzeko araubidea oro har araututa.
- Gardentasuna eta administrazio sinplifikazioa bultzatzea, horien izapidetze elektronikoa udal egoitza elektronikoa pixkanaka txertatuz.

4.4. *Ildo estrategikoak*

Honako hauek dira konpetentzia-arloka banatutako diru-laguntzen ildo espezifikokoak barne hartzen dituzten jarduera-ildo estrategikoak:

Gizarte Ekintza Arloa

- 1.1. Ildoa. Gizarte Ekintza: gizarte-larrialdietarako laguntzak.
- 1.2 Ildoa. Gizarte Ekintza: adimen urritasuna duten pertsonen parte-hartzea eta integrazioa.
- 2. Ildoa. Garapenerako lankidetzak.

Kirol Arloa

- 3. Ildoa. Kirolaren sustapena.

Euskara Arloa

- 4. Ildoa. Euskararen erabileraren sustapena.

Ekonomia eta enplegua sustatzeko arloa

- 5. Ildoa. Ekonomia eta enpleguaren sustapena.

Jardun-ildoen indarraldia urteko aurrekontuan onartuak izatearen baldintzapean eta onarpen horri mugatua dago eta, halaber, dagozkien kredituen zuzkidurara.

Aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako jardun-ildoak bakoitzaren zenbatekoak urteko aurrekontuan jasotakoak izango dira.

4.5. *Pertsona edo entitate onuradunak*

Durango Merinaldeko Amankomunazgoak pertsona fisiko edo juridikoen aldeko diru-laguntzak emango ditu helburu publikoren bat edo beren eskumenen esparruko interesen bat duten jarduerak egiteko, estatutuen arabera.

4.6. *Diru-laguntzak emateko prozedura*

Amankomunazgoak, diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 22. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, diru-laguntzak emateko prozedura hauek erabiliko ditu:

Oro har, diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emango dira.

Salbuespen gisa, oinarri arautzaileetan aurreikusten bada, organo eskudunak diru-laguntzaren onuradunen artean hainbanatuko du diru-laguntzetara bideratutako gehiengo zenbateko osoa.

Hala ere, honako hauek zuzenean eman ahal izango dira:

- a) Aurrekontuan aurreikusitako izendun diru-laguntzak.
- b) Emakida edo zenbatekoa lege-mailako arau batek ezartzen duenean.



- c) Onura publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak dutela egiaztatzen diren diru-laguntzak, edota behar den moduan egiaztatuta badaude ere, deialdi publikoan ateratzeko zailtasunak dituztenak.

4.7. *Exekuzio epea*

Oro har, diru-laguntzek urtebeteko exekuzio-epea izango dute, eta justifikaziorako, urte naturala izango da aukeratu daitekeen aldia.

Zirkunstantziek komenigarri egiten badute exekuzio-epea urtebetetik gorakoa izatea, edo epe hautagarria aldatzea, diru-laguntzen oinarri arautzaileek berariaz ezarri beharko dute aukera hori; kasu horretan, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak betetzen jarraitu beharko dute urtero.

4.8. *Aurreikusitako kostuak*

Kostuak, kasu orotan, aurrekontu orokorrean urtero ezartzen den zenbatekora mugatuko dira eta ezingo da diru-laguntzarik eman zehazten den kopurutik gorakorik.

4.9. *Finantzaketa*

Plan honetan jasotako diru-laguntzen ildoak toki-erakundearen ekitaldi bakoitzeko aurrekontuen kargura finantzatzeko dira, eta horien eraginkortasuna erreferentziako urteko aurrekontuan kreditu egokia eta nahikoa egotearen baldintzapean egongo dira.

Edozein motatako diru-laguntzetarako deialdia egiteko, beharrezkoa izango da alde aurretik gastua baimentzea, salbu eta alde aurreko izapidetze-prozeduraren bidez izapidetzen bada. Kasu horretan eskatu eta ondoren kredituko espediente ziurtatuari atxikiko zaio, eta deialdia gauzatze unean kreditu eskuragarritasun erre-alaren baldintzapean egongo da.

4.10. *Diruz lagun daitekeen aurrekontua*

1.2. «Gizarte-ekintza: adimen-desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea eta integrazioa» eta 2. «Garapenerako lankidetzak» diru-laguntzen ildo estrategikoetan, diru-laguntza jardueraren diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren %85era iritsi ahal izango da.

4. «Euskara sustatzea» diru-laguntzen ildo estrategikoan, diru-laguntza jardueraren diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren %80raino irits daiteke.

5. diru-laguntzen ildo estrategikoan «sustapen ekonomikoa eta enplegua», diru-laguntza jardueraren diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren %100era irits daiteke.

Ondorio horietarako, diruz lagundu daitekeen aurrekontutzat hartuko da ekintza egiteko beharrezkotzat, kualitatiboki eta kuantitatiboki onartutako aurrekontua.

Diru-laguntzaren ildo espezifikoaren oinarri arautzaileek arautuko dituzte diruz lagun daitezkeen gastuak, jardueraren izaeraren arabera.

Era berean, Amankomunazgoak finantzaketa propioaren zenbateko bat eskatu ahal izango du jardueraren gastuak estaltzeko. Kasu horretan, justifikazio kontuan egiaztatu beharko da diruz lagundutako jardueretarako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa.

5. **Diru-laguntzen plan estrategikoaren kontrola eta jarraipena**

Amankomunazgoaren diru-laguntzen plan estrategiko honen kontrola eta jarraipena urtean behin egingo da, bi alderditan:

- Kontu-hartzaileek diru-laguntzen kontrol ekonomiko-finantzarioa egitea, indarreko legerian aurreikusitako baldintzetan.
Kontu-hartzaileek diru-laguntzak justifikatzeko ereduak egin ahal izango ditu, gero fiskalizazioa errazteko.
- Dagokion informazio-batzordeak planaren kontrola eta jarraipena egitea.
Horretarako, diru-laguntza lerro bakoitza kudeatzen duen zerbitzuak ebaluazio-txosten bat igorri beharko du, zehaztapen hauekin:



- Diru-laguntza lerro eta mota bakoitzari buruzko informazioa, erakunde onuradunak eta emandako zenbatekoak, atzera egiteak eta uko egiteak, justifikazioa berrikus-tearen emaitza eta itzulketa osoak/partzialak (edo itzulketa-prozeduran) jasoko dituenak.
- Helburu espezifikoaren betetze-maila eta lortzeko epea.
- Ekintza-planaren benetako kostuak, aurreikus daitezkeenekin alderatuta.
- Eragin nahi den errealitatearen gaineko eragina eta ondorioak.
- Plana aplikatzearen ondoriozko aurrekontu- eta finantza-ondorioak.
- Ondorioak edo balorazio orokorra.
- Diru-laguntzen hurrengo Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

Diru-laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, zerbitzu kudeatzaileak txosten arrazoitua eskatuko die erakunde onuradunei, egindako ekintzei, diru-laguntza-ren xede diren herritarren kopuruari eta lortutako helburuen justifikazioari buruz.

6. Gardentasuna

Deialdiak, oinarri arautzaile espezifikoak eta lerro estrategiko bakoitzean emanda-ko diru-laguntzak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira, erakunde onuradunak, diru-laguntzaren zenbatekoa eta helburua adierazita.

Emandako diru-laguntzak ez dira argitaratuko onuradunaren datuak argitaratzea, di-ru-laguntzaren xedeari lotuta, pertsona fisikoen norberaren edo familiaren intimitatearen edo ohorea zaindu eta errespetatzearen aurkakoa baldin bada, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Esku- bidearen Babes Zibilar- buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Orga- nikoan ezarritakoa dela bide, eta araudi arautzailean aurreikusi bada.

7. Ildo estrategikoak eta jardun ildo zehatzak

Plan honen eranskin gisa jasotzen dira lerro estrategikoen fitxak eta helburu strate- gikoa, diru-laguntzen ildo espezifikoak edo programak eta helburu espezifikoak, bai eta 2020ko ekitaldiko aurrekontu-esleipena ere.

Plan Estrategiko honen esparruan, aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako diru-laguntzen berariazko ildoen eranskin bat onartuko da, lerro bakoitzerako aurrekontu-zuzkidura zehatza zehaztuta.



I. ERANSKINA

2020KO EKITALDIKO DIRU-LAGUNTZEN ILDO ESTRATEGIKO ETA ESPEZIFIKOAK

1. GIZARTE-EKINTZAREN ILDO ESTRATEGIKOAK

1.1. Ildo espezifikoa. — *Gizarte-larrialdietarako laguntzak*

Helburu estrategikoa

Gizarte-bazterketako arriskua prebenitzea, bazterkeria pertsonal, sozial eta laboraleko egoerak arintzea, eta udalerrri mankomunatuetakoko herritarren gizarte-eskubideak benetan egikaritzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenei gizarteratzen laguntzea.

Helburu espezifikoak

Baliabide nahikorik ez duten udalerrri mankomunatuetakoko bizilagunen gizarte-bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren ohiko edo ezohiko gastu espezifikoak aurre egiten laguntzea.

Gauzatzeko epea

Urteko deialdia.

Helburu espezifikoak laguntza ematen den urte naturalean garatzen dira. Gizarte-premiekin irauten duten bitartean laguntzak mantentzea aurreikusten da.

Finantzaketa-iturria

Ekitaldiko aurrekontua, gizarte-larrialdietarako laguntzetarako aurrekontu-aplikazioen arabera: 2310.480.01, 2310.480.02, 2310.480.03, 2310.480.04, 2310.480.05, 2310.480.06 eta 2310.480.07.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak Eusko Jaurlaritzak finantzatzen ditu.

Kostu ekonomikoak

2020ko ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako kostuak 411.166,00 eurokoak dira, horiek aldatzeko aukera alde batera utzi gabe.

Nolanahi ere, kostu ekonomikoak gizarte-larrialdietarako laguntzetarako kredituen gehieneko zenbatekora artekoak izango dira.

Emateko prozedura

Emakida-prozedura zuzenekoa izango da interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiengatik.

Jarduera-plana

Ildo hori gauzatzeko jarduketa-plana berriazko araudiaren arabera egingo da, deialdi publikoa eginez DEDBren ren bidez.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak beren araudi espezifikoaren arabera emango dira:

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko.
- 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzkoa (27/2011 EHAA, otsailaren 9koa), gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko dekretua aldatzen duen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak aldatua.
- Agindua, 2019ko abenduaren 17koa, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarena; honen bidez, 2020. urtean Gizarte Larrialdietarako Laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak finkatzen dira; eta, horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzarentzat 2020. urterako aurrekontu-mugak finkatzen dira.
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak 2020ko ekitaldian gizarte-larrialdietarako laguntza emateko irizpideak.

*Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua*

Hauek dira adierazleak:

- Espediente-kopurua eta onuradun-kopurua.
- Estaldura: emandako laguntzen kopurua/eskatutako laguntzen kopurua.
- Emandako guztizko zenbatekoa eta udalerrien arabera banaketa.
- Kontzeptu edo gastu espezifikoengatik emandako zenbatekoak.
- Espediente bakoitzeko batez besteko zenbatekoa: guztira emandako euroak/espediente-kopurua.
- Onuradun bakoitzeko batez besteko zenbatekoa: guztira emandako euroak/onuradun kopurua.
- Generoaren arabera banaketa, pentsiodunei eta geografikoari dagokienez: laguntzen kopurua generoaren arabera, pentsiodunentzako laguntzen kopurua, udalerrien arabera/emandako laguntzen guztizko kopurua.

1.2. Ildo espezifikoa. – Adimen-desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea eta integrazioa*Helburu estrategikoa*

Irabazi-asmorik gabeko elkarten jarduera sustatzea gizarte-ekintzaren esparruan, desgaitasun intelektuala duten pertsonak beren ingurune pertsonalean, familiarrean eta sozialean parte har dezaten eta integra daitezten sustatzeko, bai eta balio kolektiboak gara ditzaten ere, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko Gizarte Ekintzako Arloaren zuzeneko jarduera osatuz.

Helburu espezifikoak

- Adimen-desgaitasuna duten pertsonen gizarteratzea eta autonomia pertsonala sustatzea, aisialdiaren, astialdiaren eta kirolaren bidez.
- Familiei desgaitasun intelektuala duten pertsonen bizi-proiektuan laguntzea, aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduerak sustatuz, familiek atseden-denborak izan ditzaten.

Gauzatzeko epea

Urteko deialdia

Finantzaketa-iturria

Amankomunazgoaren aurrekontua 2310.481.01 aurrekontu-aplikazioan «oinarrizko Gizarte Zerbitzuak: adimen-desgaitasuna duten pertsonen integrazioa sustatzeko diru-laguntzak».

Kostu ekonomikoak

2020ko ekitaldian aurreikusitako kostuak 30.000,00 euro dira.

Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

Jarduera-plana

Ildo hori gauzatzeko jarduketa-plana berriazko araudiaren arabera egingo da, deialdi publikoa eginez DEDBren bidez.

Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua

Hauek dira adierazleak:

- Emandako laguntzen kopurua.
- Estaldura: emandako laguntzen kopurua/eskatutako laguntzen kopurua.
- Proiektuetan parte hartu duten pertsonen kopurua.
- Urteko atseden: orduen/egunen kopurua.

**2. Ildo estrategikoa. — Garapenerako lankidetz***Helburu estrategikoa*

Herri behartsuenen garapenean laguntzea, haien bizi-baldintzak hobetzen laguntzen duten proiektuak garatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko elkarten jarduera sustatuz.

Helburu espezifikoak

- Herritarren garapenerako lankidetz eta sentsibilizazioa sustatzea, parte hartzeko gune solidarioak sortuz.
- Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko elkarteek sustatutako populazio ahulen edo garapen-bidean dauden herrialdeen - Bereziki, haurren eta emakumeen - Oinarrizko, osasun- eta hezkuntza-premiei arreta integrala emateko proiektuei laguntza ematea.
- Laguntza ematea egoera ahulean dauden herrietako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako hurrei aldi baterako harrera egiteko proiektuei, baldin eta Mankomunitateko udalerriren batean egiten badira, haien bizi-kalitatea hobetzeko.
- Adiskidetasun- eta lankidetz-loturak sustatzea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko tokiko elkarteek sustatutako herrien eta pertsonen arteko sentsibilizazio- eta elkartasun-ekintzen bidez.

Gauzatzeko epea

Urteko deialdia.

Sine die helburu espezifikoak emateko epea.

Finantzaketa-iturria

Mankomunitatearen aurrekontua 2310.481.05 «oinarrizko Gizarte Zerbitzuak: lankidetz- eta elkartasun-proiektuetarako diru-laguntzak» aurrekontu-aplikazioan.

Kostu ekonomikoak

2020ko ekitaldian aurreikusitako kostuak 20.000,00 euro dira.

Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

Jarduera-plana

Ildo hori gauzatzeko jarduketa-plana berriazko araudiaren arabera egingo da, deialdi publikoa eginez DEDBren bidez.

Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua

Hauek dira helburu espezifikoak ebaluatzeko adierazleak:

- Emandako laguntzen kopurua.
- Hartutako adingabeen kopurua.
- Garapen bidean dauden herrialdeetara bidalitako oinarrizko elikagaien kg kopurua edo oinarrizko beste produktu batzuen unitate kopurua.
- Emandako batez besteko zenbatekoa: guztizko zenbatekoa/Aldi baterako harrera-proiektuetan parte hartzen duten haurren kopurua.

3. Ildo estrategikoa. — Kirolaren sustapena*Helburu estrategikoa*

Kirola sustatzea eta bultzatzea, bizi-kalitatea hobetzeko jardunbide osasungarri eta bitarteko gisa, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren kirol-instalazioetan atletismoko eta pistako txirrindularitzako espezialitateak sustatuz, tokiko kirol-erakundeekin lankidetzan arituz.

*Helburu espezifikoak*

- Atletismoko eta pistako txirindularitzako kirol-diziplinak sustatzea, Amankomunazgoko udalerrietako tokiko kirol-erakundeei lagunduz.
- Amankomunazgoaren kirol-instalazioen erabilera sustatzea herritarren artean, baita instalazio horien kalitatea ere.
- Tokiko kirol-erakundeetan kirol federatua sustatzea.
- Kirol-erakundeen jardueretan desgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala duten pertsonak gizarteratzeko politikak sustatzea.
- Eskualdea sustatzea, tokiko kirol-erakundeek antolatutako kirol-lehiaketak egiten lagunduz.
- Toki-erakundeen jardueretan euskararen erabilera sustatzea.
- Emakumeen parte-hartzea sustatzea tradizioz maskulinitzat jotzen diren kiroletan.

Gauzatzeko epea

Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria

Amankomunazgoaren aurrekontua 3411.481.01 aurrekontu-aplikazioetan: belodromoaren sustapena: diru-laguntzak eta 3412.481.01: Atletismo Pistaren sustapena: diru-laguntzen eranskinean jasotako diru-laguntzak.

Kostu ekonomikoak

2020ko ekitaldian aurreikusitako kostuak 47.000,00 euro dira. Kirol-modalitate bakoitzari esleitutako gehieneko zenbatekoa honako hau da:

- 3411.481.01: Belodromoaren sustapena: 7.000,00 euroko diru-laguntzak.
- 3412.481.01: Atletismo Pista sustatzea: 40.000,00 euroko diru-laguntzak.

Erakunde edo elkarte bakoitzak gehienez jaso dezakeen zenbatekoa urteko deialdian zehaztuko da.

Emateko prozedura

Ildo estrategiko hau gauzatzeko diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

Jarduera-plana

Ildo hau gauzatzeko jarduketa-plana berariazko oinarri arautzaileen arabera egingo da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdi publiko eginez, DEDBren bidez.

Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua

Helburu espezifikoen lorpena ebaluatzeko adierazleak honako hauek dira:

- Emandako diru-laguntzen kopurua.
- Kiroleko hastapen-jardueretako parte-hartzaileen kopurua.
- Klean lehiarik gabeko herri-jarduera fisikoa sustatzea eta udalerrian kirol-modalitatea bistaratzea.
- Kirol-erakundearen udalerrri mankomunatuetakoko kirolari federatuen kopurua.
- Atletismo Pistaren edo Belodromoaren instalazioetan egindako ekitaldien kopurua.
- Klean jarduera fisiko ez-lehiakorra sustatzeko eta udalerrian kirol-modalitatea bistaratzeko ekintzen kopurua.

4. Ildo estrategikoa. — Euskararen sustapena*Helburu estrategikoa*

Durungaldeko gizarte-, kultura-, kirol-, lan- eta ekonomia-bizitzan euskararen erabilera sustatzea.

*Helburu espezifikoak*

- 2019-2022 aldirako Euskara Sustatzeko Plan Estrategikoan jasotako eremuetan euskararen erabilera sustatzea helburu duten eskualde mailako proiektuak edo programak babestea.
- Eremu pribatuko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia sustatzea, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-establezimenduetan kanpoko errotuluak jarriz eta webguneak euskaraz eginez
- Erakunde onuradunen jardueretan euskararen erabilera sustatzea.

Gauzatzeko epea

Urteko deialdia.

Finantzaketa-iturria

3350.481.01 «euskara sustatzea: diru-laguntzak» aurrekontu-aplikazioetako urteko aurrekontua.

Kostu ekonomikoak

2020ko ekitaldirako aurreikusitako kostuak 11.000,00 euro dira.

Emateko prozedura

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da.

Jarduera-plana

Lerro hau gauzatzeko jarduketa-plana berariazko oinarri arautzaileen arabera egingo da, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdi publikoa eginez, DEDBren bidez.

Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua

Helburu espezifikoen lorpena ebaluatzeko adierazleak honako hauek dira:

- Eskualde-mailako proiektuen kopurua, parte-hartzaileen kopurua.
- Errotulu eta webguneetarako emandako laguntzen kopurua.
- Batez besteko zenbatekoa: guztizko zenbatekoa/laguntza-kopurua.

5. Ildo estrategikoa. — Sustapen ekonomikoa eta enplegua

DIRUZ LAGUN DAITEKEEN LERROA. — *DURANGALDEKO ENPRESEN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA*

Helburu estrategikoa

Durangaldeko enpresen lehiakortasuna eta balio jasagarria sustatzea, beren eskumenen aplikazio adimendunaren, bereizketaren eta dibertsifikazioaren bidez aukerak sortuz, eskualdean kalitatezko enplegua sortzeko.

Helburu espezifikoak

- Durangaldeko Lehiakortasun Poloan parte hartzea, tokiko garapena eta sustapen ekonomikoa sustatzeko.
- Sustapen ekonomikoa eta enpleguaren sorrera sustatzeko erakunde-sareetan parte hartzea.
- Durangaldeko eskualdean negozio-aukera berriak eta kalitatezko enplegua sortzea bilatzen duten bitarteko eragileekin, erakundeekin edo enpresekin lankidetzan parte hartzea.

Gauzatzeko epea

Urteko deialdia

Finantzaketa-iturria

Urteko aurrekontua, diru-laguntzen eranskinean jasotako aurrekontu-aplikazioen arabera.

*Kostu ekonomikoak*

2020ko ekitaldirako aurreikusitako kostuak 35.000,00 eurokoak dira, eta 2410.481.01 «diru-laguntza. Lehiakortasun-poloa».

Emateko prozedura

Laguntzak emateko prozedura 2020ko ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza izendunaren bidez egingo da.

Jarduera-plana

Ildo hori gauzatzeko jarduketa-plana diru-laguntza izendunaren hitzarmen arautzailea emateko eta onartzeko akordioaren bidez egingo da, DEDBren bidez bidezko deialdiaren bidez.

Lortu nahi den efektuaren lorpena neurtzeko modua

Helburu espezifikoaren lorpena ebaluatzeko adierazleak honako hauek dira:

- Durangaldeko Lehiakortasunerako Poloaren Batzorde Betearazlearen bilera-kopurua (aurrerantzean, EEP).
- Negozio-aukerak sortzera eta enplegua sortzera bideratutako proiektuen kopurua eta proiektuetan parte hartzen duten enpresen kopurua.
- Behar lehiakorrak eta negozio-aukerak eta kalitatezko enplegua sortzeko aukerak atzematera bideratutako analisietan eta azterlanetan parte hartzen duten enpresen kopurua.
- Enpresei zuzendutako prestakuntza-saioen eta lankidetzatopaketaren kopurua.
- Topaketetan parte hartu duten enpresen kopurua.
- Topaketetan parte hartu duten pertsonen kopurua.
- Topaketetan parte hartu duten emakumeen kopurua.
- Enpresekin egindako topaketa kolektibo bakoitza komunikabideetan zenbat aldiz zabaldu den.
- Beste bitarteko agente batzuekin egindako topaketaren kopurua, eraikuntzako eta eraispenerako planaren lan-esparruan.